

MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEKO TITULAZIOETAKO HAUTAZKO KREDITUEN AITORPENEA

EHUko araudi orokorraren arabera, kredituengatik onarpen akademikoaren xede izan daitezke kultura, kirol, ikasleen ordezkariak, elkartasun eta lankidetzak-jarduerak, betiere gehienez ikasketak-plan osoko 6 ECTS kreditu lortu ahal izango direlarik.

6 ECTS kredituko muga horretan sartzen dira gradu onartutako curriculumetik kanpoko jarduerak guztiak (kanpo-praktikak, jardunaldiak eta mintegiak, kultur, kirol, ikasleen ordezkariak, elkartasun eta lankidetzak-jarduerak gain).

Ikastegiak 6 ECTS kredituko programa itxi baten bidez onartu eta eskaini dituen kanpoko borondatezko praktiken kasuan izan ezik, curriculumetik kanpoko gainerako jarduerak ikasturte bakoitzeko 3 ECTS onartuko dituzte gehienez.

Ikastegiak ez du hautazko kredituen aitortzea baimenduko titulazioaren hautazko kredituen gehieneko kopurua bete den kasuetan (Graduko irakaskuntzetarako kudeaketa-araudiaren [20. artikulua](#)).

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak egiaztatu behar dituen jardueren kasuan, Akademia Antolakuntzako Batzordeak ezarriko du zein diren jarduerak bakoitzean hautazko kredituak aitortzeko irizpideak. Irizpide horiek honelako alderdiak hartuko dituzte kontuan: eskatutako aurrez-aurrekotasun maila, jardueraren prestakuntzarako inplikazioa edo jardueraren ondorengo onura, jardueraren intentsitatea (etengabeko arreta edo arreta etena), etab.

Osasun arloko jardueren kasuan, aurrez aurreko 15 ordu beharko dira ECTS kreditu baten aitortzea eskatzeko. Irizpideak aldeztu aurretik ezar daitezke fakultatearen eta osasun zientzietako prestakuntza jardueren sustapenarekin lotutako erakundeen artean (lanbide elkargoak edo antzekoak, esaterako) erabakitako jardueretarako.

Modu indibidualean ere ezar daitezke aldi behingo jardueretarako, fakultateko ikasleek antolatutako jarduerak lehenetsita. Jarduera horiek iragarri egingo dira ikasleak bertaratu eta kredituak lor ditzaten ahalbidetzeko.

<https://www.ehu.eus/es/web/estudiosdegrado-graduikoikasketak/kredituak-transferitu-eta-onartzeko-araudia>

Ikasleek kredituen aitortzea eskatzeko prozedura

Ikastegiak ezarritako epean, ikasleak nahi duen kreditu kopurua aitortzeko eskaera aurkeztuko du, dagozkion akreditazioak eta ziurtagiriak aurkeztuz.

Erakunde antolatzaileak kredituen aitortpena eskatzeko prozedura

Bi hilabete lehenago, ekitaldiaren antolatzaileek eskaera orria (I. eranskina) beteko dute dekanuari zuzenduta. Eskaera Akademia Antolakuntzako Batzordeak aztertu eta balioetsiko du. Batzorde horrekezarriko du zenbat ECTS kreditu aitortuko diren eta zer baldintza bete beharko diren kredituak aitortzeko, lehen zehaztu bezala.

I. ERANSKINA

MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZA FAKULTATEKO IKASLEEI CURRÍCULUMETIK KANPOKO JARDUEREN BIDEZ HAUTAZKO KREDITUAK AITORTZEKO ANTOLATZAILEEN ESKAERA ORRIA

Jarduera mota: _____

Jardueraren izena: _____

Jarduera egiteko tokia: _____ Data: _____

Aurreikusitako parte hartzaileak: _____ Ordu kopurua: _____

Aurreikusitako asistentziakontrola: _____

Parte hartze mota eta aurreikusitako egiaztatzea: *bertaratua hizlaria*
bestelakoak

Jarduera egitea proposatu duen erakundearen identifikazioa eta jardueraren arduraduna:

Proposamena abalatzeko duen UPV/EHUren Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasle-ikertzailea:

Jardueraren laburpena (200 hitz, gehienez) (*Erantsi programa, halakorik bada*):

Oharra: Ekitaldiaren antolatzaileak arduratuko dira asistentzia kontrolaz. Asistentzia hori %85etik gorakoa izan behar da baliozko bertaratze ziurtagiri bat emateko hautazko kredituak aitortzeari begira. Asistentzia kontrolak ikastegira igorriko dira, baita parte hartzea egiaztatuta duten ikasleen zerrendak ere.

Data eta sinadura

Sin.: